



Zuzendari jn./and.:

Hezkuntza Sailak erabiltzen dituen aplikazio informatikoen artean prest dauka 2006-07 ikasturteetik aurrera egutegien aplikazio informatikoa. Aplikazio informatiko honek helburu hauek ditu: ikastetxeko eskola-egutegiak errazago eskatzea, eskaera hori errazago betetzea eta ahalik eta etekinik handiena ateratzea ikastetxeetatik eta Hezkuntza Saitetik.

Betetzeko, argibide hauek eman behar dira:

- “Egutegiak” aplikazio informatiko honek **ikastetxeen egutegiak** kudeatzen ditu **2011/2012 ikasturterako**.
- Aplikazio informatiko honek haren egutegia bistaratzeko aukera ematen dio ikastetxe bakoitzari, betiere sartu baldin badira. Hezkuntza Sailaren web orriaren aplikazioetan dago (ezkerreko aldean), antolaketa pedagogikoaren karpetaaren barruan eta “bertaratze agiriak” aplikazioaren alboan.
- Erabiltzaile eta pasa-hitzen klabeak Hezkuntza Sailaren ihazko aplikaziora sartzeko erabili ziren berberak dira.
- **Maiatzaren 12tik aurrera** irekita egongo da aplikazioa, egutegiak bete ahal izateko **lanbide heziketako zikloetarako izan ezik**.
- **Lanbide Heziketako egutegiak, 2011/12 ikasturterako eskaintza itxiko denetik aurrera irekiko dira (maiatzaren 20tik aurrera)**
- Ireki eta datuak transkribatu aurretik, funtzionatzeko gida eta aplikazioaren hasierako orrian azaltzen diren abisu eta berrikuntzak arretaz irakurtzea gomendatzen da.
- **Ekainaren 1a** izango da datuak sartzeko azken eguna. Data horretarako ikastetxeak aplikazioa itxi ez badu, Administrazioak egindako eta aplikazioan eskura egongo den egutegi ofizialaren arabera jokatu du dela interpretatuko da.
- Ihaz bezala ikasturte honetan, egutegi proposamenak gainditu ziren OOG/EK-aren data aplikazioan beharrezkoa da sartzeko aplikazioa itxi ahal izateko. **Aplikazioa ixteak egindako proposamena behin-behingo onartzen duela esan nahiko du.**
- Proposamenak Lurraldeko Hezkuntza Ikuskariek gainbegira eta onartu ondoren, egutegia (ikastetxearen maila bakoitzekoa) itxia geratuz gero,

“Zuzena” nahiz “Ez da zuzena; baimena du” egoeratan izanik, Ikastetxeak maila gaindituen egutegiak inprima ditzake, bertan dagokion Lurralde Ordezkaritzaren sinadura eta zigilua eramango dituztela.

- Gogorarazi behar da Ikastetxeetako Erabiltzaileei Arreta Emateko Zentroari **(CAU) (tfnoa: 945.016292)** planteatu beharko zaizkiola sortzen diren arazo tekniko guztiak (pasa-hitzekin arazoak, komunikazio-akatsak, aplikazioaren akatsak, sarea erortzea, etab...).
- Aitzitik, zonaldeko Hezkuntza Ikuskaritzari planteatuko zaizkio egutegien aplikazioaren edukiaz izan daitezkeen zalantzak. Aplikazioaren hasierako orrian gida bat agertzen da, datuak sartzeko argibideak dituena. Halaber, orri horretan bertan jarriko dira Egutegiak betetzeko prozesuan sortzen diren berrikuntza guztiak.

Zure laguntzarengatik eskerrak emanez, adeitasunez agurtzen zaitut:

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 11an

Ikuskari Nagusia



Fdo/:Izpta.: Alfonso Fernández Martínez